



2. ERANSKINA: Erreferentzia Topografikoen Hiri Sarearen (ETHS) kontserbazioa eta dentsifikazioa arautuko dituen araudia

A. DEFINIZIO OROKORRA

Erreferentzia Topografikoen Hiri Sarea Aretxabaletako udal mugarteko azpiegitura topografikoa da eta bere erpin guztien multzoak osatzen du, UTM sistemako X, Y, Z koordenatu planimetricoen bidez.

Z koordenatuaren alderaketa plano a Gipuzkoako Foru Aldundiaren Doitasun Handiko Nibelazio Sarerako hartutako bera da.

Erpin hauek bi seinale motarekin adierazten dira, beren jatorriaren arabera:

- a) Tamaina handiagoko kubotan sostengatzen diren hormigoizko seinale zilindrikoak, erpin geodesikoen antzeko itxura fiskoa dutenak.
- b) Metalezko seinale erdiesferiko zenbakitu eta solidarioak, bide publikoetako zoladurara ainguratutako metalezko plakekin. Hauen zenbakia aldakorra da eta hirian barna banatu dira ahalik eta modu homogeneoenean.

B. XEDEA

Etengabe egiten diren hiri obrek eta ezagutzen ez duten hori suntsitzen duten pertsonen irizpiderik ezak Erreferentzia Topografikoen Hiri Sarearen erpin ugariaren galera ekarri dute.

Araudi honek bi helburu nagusi ditu:

- 1.- ETHSaren erpin berriak sortzea hiri lurzoruan eta hiri kanpoko lurzoru urbanizagarrian jarduketak egiten direnean.
- 2.- Erpin bat desagerraraztea dakarten obrak egikaritzen direnean, erpina ordezkatzeko dela ziurtatzea.

Bi kasu hauetan, ETHSan sartzen diren erpin berrien X, Y, Z koordenatuen zehaztasuna dagoeneko dauden koordenatuen zehaztasunaren parekoa izango da. Horretarako ezarri da beherago garatu den araudia.

C. SARE TOPOGRAFIKOA

ETHSan integratuta dauden erpin guztiek udal mugarteko azpiegitura topografikoa osatzen dute, sare homogeneo baten barne.

Sare topografiko horren zehaztasuna sarearen behaketan, kalkuluan eta konpentsazioan erabilitako



prozeduren eta metodoen emaitza da eta sarea ezarri zenetik egiten diren etengabeko egiaztapenei esker, ETHS honen puntuen koordinatu planimetricoen zehaztasun erlatiboa +/- BI ZENTIMETROKOA (+/- 0,02 m) dela ziurtatzen da udal mugarte osoan zehar.

D. NIBELAZIO SAREA

Z koordinatu altimetricoa nibelazio geometriko bidez lortu da, udal mugarte osoan zehar ezarritako doitasun handiko nibelazio seinaleak oinarri hartuta. Horri esker, aurreko puntuan koordinatu planimetricoetarako adierazi dena baino zehaztasun handiagoa bermatzen da kotetan.

E. ARAUDIA

Erreferentzia Topografikoen Hiri Sarean erpin berriak sortzean, kontuan hartu beharko da:

Instrumentuak

Erabat kalibratuta eta zuzenduta egongo dira.

Edozein poligonalen itxitura bermatzen duten apreziazio angeluarra eta zehaztasun lineala izango dituzte, ETHSak duen zehaztasunarekin edo handiagoarekin.

Metodoak

ETHSaren erpinetatik jarduketa eremura doazen koordinatuen hurbiltze poligonalak konfiguratu egingo dira poligonalen luzeren artean % 20tik gorako alderik ez egoteko moduan.

Eskatutako tolerantziak bermatzen dituzten metodoak erabiliko dira.

Memoria

Lan topografiko guztiekin batera aurkeztuko den memoriak atal hauek izan beharko ditu halaberrez:

- a) Erabilitako instrumentuak eta instrumentuen ezaugarri teknikoak eta kalibrazio ziurtagiria.
- b) Erabilitako metodologia, kalkuluak, lortutako emaitzak eta autoegiaztapenak.
- c) Landa datuak.
- d) Erpin berrien aipamenek udal zerbitzu teknikoak emandako txantiloia jarraituko dute.

ETHSaren zehaztasuna baino handiagoa duten lan topografikoek ez dute lortu nahi den helburua beteko.